

III. "UMORE AZOKA 2009" ARGAZKI RALLYA

Leioako Udaleko Kultura Sailak, **LEIAR ARGAZKI TALDEA**rekin batera (Leioako argazki elkartea) **"III RALLYE FOTOGRÁFICO UMORE AZOKA 2009"** antolatu du honako oinarri hauekin:

OINARRIAK

1. Argazki rallyko gaia hau izango da: "Leioako Umore Azoka".
2. Rallya 2009ko maiatzaren 23an egingo da.
3. Argazkizale diren guztiek esku hartu ahal izango dute.
4. Rallyan izen ematea 11:00etatik 12:00etara edo 17:00etatik 18:00etara egingo da maiatzaren 23an Leioako Kultur Etxeko 1. solairuan, antolakuntzak ematen duen izen-emateko orria beteta.
5. Rallyan izen-emateak honako kostua izango du:
 - Haurrak (14 urte arte): 3,00 €.
 - "Leiar Argazki Taldeko" bazkideak (bazkide txartela erakutsita): 4,00 €.
 - Gainerako parte hartzaileak: 5,00 €.
6. Partaide bakoitzak bere argazki kamera ekarriko du:
 - Modalitate analogikoan 35mmko kolorezko negatiboa emango zaio bakoitzari, 24 argazkikoa, eta errebelatua antolakuntzak egingo du.
 - Modalitate digitalean partaide bakoitzak ekarri beharko du bere memoria txartela, konexio kablea eta/edo argazkiak ordenagailura pasatzeko behar den beste edozein gailu. Memoria txartelak hutsik egon behar du Rallya hasten den unean eta kamerak data eta ordua behar bezala jarrita eduki behar ditu.

Argazki kamerarik ez duen rallyko partaideari erabili eta botatzeko kamera analogiko bat emango zaio; kasu horretan aurre-inkripzioa egiteko aholkatzen dugu, e-mail bidez, argazkileioa@yahoo.es, helbidean, eskuragarri dagoen kamera kopurua mugatua baita.
7. Parte hartzaile guztiek kontrol argazki bat egin behar dute, parte hartzeari balioa emango diona. Izen-ematea egiteko unean esango da zein den kontrol argazki hori.
8. Modalitate analogikoan pelikulak 24 argazkikoak izango dira, beraz 23 argazki atera daitezke, kontrol argazkia atera eta gero. Modalitate digitalean parte hartzaileek 11 argazki entregatu beharko dute: kontrol argazkia eta beste 10 irudi. Kopuru horretatik gorako argazkiak ez dira lehiaketan sartuko. Material digitala entregatzerakoan ez dago antolakuntzaren ordenagailuan hautaketa lana egiterik.
9. Argazki guztiak kameraren erresoluzio mailarik altuenarekin atera behar dira, kalitaterik onenean (kompresiorik txikienarekin) eta jpeg formatuan.

Lehiaketan ateratako argazkien txartela antolakuntzari eman ostean, honek edukia hustuko du eta jabeari itzuliko dio dauzkan argazkiekin.
10. Argazkiek rallyaren egunean ateratakoak izan behar dute eta rallyak dirauen orduetan, antolakuntzak arakatze programa baten bidez datu hori egiaztatuko baitu, betekizun hau betetzen ez duen partaidea baztertuz.
11. Pelikula eta txartelak 13:30etatik 15:00etara edo 21:30etatik 23:00etara emango dira, izen-ematea egiten den leku berean.
12. Sariak hauek dira:
 - Helduen maila:
 - 1. saria, bildumarik onena: 300 €.
 - 2. saria, argazkirik onena: 225 €.
 - 3. saria: 150 €.

- Haurren mailan:

- Argazkirik onenen artean banatzeko: 10 sarrera urrian eta azaroan Kultur Leioan egingo diren ikuskizunetarako eta beste zenbait opari.

13. Epaimahaiak eskubidea dauka sariren bat desertu emateko, kalitatea eskasa izanez gero.

14. Irudien edozein aldaketak edo arauak ez betetzeak kanpoan utziko du partaidea.

15. Sari-banaketa 2009ko ekainaren 19an izango da Kultur Leioan.
Saio horretan modalitate analogikoko partaideei argazkiak emango zaizkie.

16. Pertsona batek ezin izango du sari bat baino gehiago jaso.

17. Saritutako lanak antolakuntzaren eskuetan geratuko dira, eta haien gaineko eskubide guztiak hartuko ditu, eta ongi deritzon helburuetarako erabil ditzake.

Aukeratu eta saritutako argazkiekin, antolakuntzarako material grafikoa izango den horrekin, erakusketa bat egingo da.

18 Parte hartzeak oinarri hauek onartzea esan gura du. Inolako ezustekorik gertatzen bada, antolakuntzak erabakiko du zer egin.